

Barakaldoko kultur astearen azkeneko egunean

# Juan San Martin literaturaz mintzatu zen

Juan San Martin, Euskaltzaindiaren Literatura Batzordeko Laguntzailea, euskararen aldeko Barakaldoko azken hizaldian euskal literaturaz aritu zen. Euskal literaturaren historiari begiratu bat ematen saiatu zen mintzaldian zehar eta beste hizkuntzetan adinako literatura ez dela egon onartu zuen arren, berarentzat ez da egia euskarak ez duenik adierazteko ahalmenik. Euskal literatura berandu hasi zela adierazi ondoren, XVIII. mendera arte literatura indartsu bat ez dela agertzen esan zuen, baina hau ez da harritzekoa. Alemaniaren kasuari so egiten badiogu: bertan ez da agertzen literatura indartsu bat alemanera batu zen arte. Era berean, latinetik datozen hizkuntzek latinari egiten zioten erreferentzia; horrela, Espainian Nebrijak ikusi zuen gaztelera hizkuntza literarioa izateko positibitateak, halako hizkuntza arunt eta behetako izan arren. Cervantesek ere bere burua justifikatu nahi zuen latinez idazten ez zuelako, eta bakoitzak menperatzen duen hizkuntzaz idatzi behar duela esaten zuen.

Ondoren, literaturaren hastapenak urratzen hasi zen hizlaria eta horrela Garibaik egindako kanten bilduma aipatu zuen. Etxepareren liburua, inprimatuta agertu zen lehenengoa. Trenteko Kontzilioa baino lehen idatzia izan zela azpimarratu.

Geroago, Ibon Sarasolarekiko desadostasuna adierazi zuen Leizarragari dagokionean; Juan San Martinentzat, Sarasola Lukacsen teoria ekonomikoetan oinarritzen da eta beraz horren arabera aztertzen du dena. Bibliaren itzulpena, ordea, ez zen burruka ekonomiko izan, ideologikoa baizik, Juan Martinen ustez, bazela katolizismoa onartzen ez zuen jendea, eta bere ideiak zabaldu

nahi zituen. Hala ere, ez zuten lortu, literatura ere katolizismoaren arabera egiten delako.

XVII. mendearrekin batera, Barrokora sartzen garaia azaldu zuen. Duda izpirik ez dauka hizlariak, mende honeko idazlerik trebeena Axular dela adierazteko orduan. Aipagarria da Salamankan eta Parisen ibilitako idazlea dela eta Fray Luis de Granadaren ideiak eta helburuak zituela. oso espontaneo, bestalde, eta Prasa aberastekoa. Aipagarria da, halaber, Etxeberri Ziburukoa eta «Noelac» bere liburu bat, zeinac gabonetako kantak bildu zituen. Apaiza zela ere, eta Doctor theologoa izanez gain, itasontziatiko maketak ere egiten zituela puntualizatu zuen Juan San Martinek, bere erudizioa azalduz.

Barrokorekin barruan aipatzea merezi izan zuen beste idazle bat Oihenart dugu: erre-frauk eta gaztaroko poemak interesantek dira, eta harritzekoa da nola zuberotarra izanik Euskal Herriko historia eta kultura ezagutzen zituen.

Neoklasikoan herriaren aldeko sentimendu bat sortzen dela kontatzen segitu zuen hizlaria; horrela Mogelen «Peru Abarea» sortzen da euskararen barneko hizkera guztiak erakutsiz. Mogelek, bere lehenengo liburua gipuzkeraz idatzi zuen, hizkaitarra izanik; honek adierazten du baturantzako edo hizkuntza standari bat lortzeko joera. Benetako indarra, hala ere, Romantizismoan sortzen da, Juan San Martinen ustez; bertan, herriko balioak bultzatzen ziren, eta aipagarriak dira Bilintx eta Iparragirre. Jose Manterola horien artean ez badago ere, poema zaharrak bildu zituen kanzonero batean eta Bilintxen eskuizkribuak salbatu zituen da. Romantizismo bukaeren beste mugimendu inte-



Juan San Martin.

resgarri bat dago Donostia inguruan, antzerkiari dagokionean; 1.000 obra inguru idatzi ziren eta antzerzteko mugimendu normaldua zegoen. Mugimendu horretan Pio Barojaren aita zegoen eta era berean Martzelino Soroa eta Joxe Manterola ere aipatzeak dira. Gure mendera ailegatu, poeta onak izan direla zaldtu zuen; Etxahun eta Izrueta, azken honen estiloa batere ona ez zelarik, nahiz eta sentimendu aldeko oso polita izan. Lizardi ere aipatu zuen, modan dagoela adieraziz, eta Lauaxeta, bere poemak klase borroka delakorekin barruan kokatzen direlarik, eta honetaz poesia soziala giaten zuena. Txomin Agirre egile konpainista ere aipatu zuen, apaiza izan arren bere obra interesgarria dela gaineratuz.

Beste aldeetik, eta euskal poesiaz hitz eginez, bertan beste tradizioetan aurkitzen ez diren mitofantasiak agertzen direla esan zuen; adibidez, hitz egiten duten ardiak, etabar, tradizioa oso zaharra delako adierazgarri.

Gerra osteko literaturan izugarriko zapalketa ematen dela ere adierazi zuen eta ideia berriak ekarri zituztenak Mitxelena, Etxaniz, Aita Onaindia etabar izan ziren.

Ondoren belaunaldi berria dator eta hemen Juan San Mar-

tinena aipatu merezi izan zutenak Txillardegi, Saizarbitoria eta Lertxundi izan ziren, lehenengo honen «Leturaren egunkari izakuna» Espainian egin den lehenbizikoa nobela existentzialista dela azpimarratuz. Honek literaturaren mugimendu berri bat erakartzen du eta gaureratu, bere ustez, autore bakoitzak bere irazera, kriterioak eta moduak ditu baina literatura aberatsa da batez ere gaietan, poesia nahiz prosan.

Miranderi erreferentzia egin zion ondoren, haize feskoren ckarlea izan zela adieraziz; in-terese handiko poetatzat jo zuen, Arestiren iradokilea izanik.

Mitxelena, bestalde, eskola bat sortu zuen Arantzazun eta han Bitoriano Gandiaga, Joxe Azurmendi, etabar. Gandiagak eta Lekuonak Mirandek markaturiko bidea segitu dute hizkuntzaren erabilpenari dagokionez.

Geroago esperimentu berriak izan dira poesia plastikaren munduan eta hor Koldo Izagier gorakada handia suposatzen du.

Amaitzeko, dagoen itzultzaile eskola bat behar dela adierazi zuen.

Eman ziren galdera bakanez, bestalde, linguistikara desbideratu nahi zuten gaiak, honelako kasuetan gertatzen den moduan.

Kritika gisa, Juan San Marti-

nek Euskaltzaindiaren ildoak baiezatu zuen ostiralean, euskal literaturaren azaleko deskripzioa eginez, inolako ikuspuntu literariorik agertu gabe ere, hitzaldia zenbait puntutan aspergarri gertatu zelarik. Azken puntu hau hobeto ulertuko da bertara eramane zituen liburua Sarasolaren «H<sup>a</sup> social de la literatura vasca eta Enrique Zabalaran «Euskal literatura alfabetatzeko zirela esan ondoren.

Honenbestez bukatu zen hitzaldia eta mahai inguru zikloa Etxepare Kolektiboak antolatutako kultur aste honetan. Larunbateko ekiniza Akelarre Plazan eta gauean kantaldia Oskorri taldearekin Barakaldoko Formazio Profesionaleko eskolan. Arletza jendez gainetza zegoela, Oskorriren ohizko maisutasunak txunditurik utzi zuen ikus-entuzlegoa.

Balantze gisa, Etxepare Kolektiboak egindako balorapena oso positiboa izan da. Hala ere, hasiera batetan dohanik izango ziren ekintzei, prezio minimoa ipintzea erabaki zen, hau da, 50 pezeta zire sarerra eta 150 kantaldia. Bestalde, eta akats teknikoengatik, zenbait ekintza askotan aldatu da lekuz; hau guztioengatik barkamena eskatzen ditu Kolektiboak eta era berean espero du aurrerantzko ekintzak askoz ere sendo eta positiboagoak izatea.

Jakina denaz, euskararen aste hau Barakaldoko Udal Gorenaren kultur batzordearen laguntzaz eratu da eta hasieran aprobataurik zegoen presupostuik gau-jai eta kantaldiaren dirua kentzea erabaki zuen PSOEren gehiengo duen korporazioak, ekintza horiek euskararekiko zenikusirik ez zutelakoa.

Amaitu da, beraz, euskararen Barakaldoko asten eta, era berean amaitutzat joko dugu guk kronika sail hau.

ERLATEGIA

## Eusko Jaurlaritzari

Duela zenbait aste, Nafarroako hiriburuan, Euskal Herriko hiriburuan, alegia, gauza harrigarria gertatu zen. Hamazazpi, ez gehiago eta ez gutxiago, hamazazpi lagun bildu ziren asmo txar batekin, trafikoko seinaleak hondatzea, jarrita zeuden izenak, hain polit zirenak, estaliz eta gainean beste izen barbaroak jarri. San Sebastian zegoen lekuan *Donostia*, Vitoria zegoenean *Gasteiz*, Pamplona estaliz *Iruñea* jarri zuten. Eta errematez inork ezagutzen ez zuen izena: *Bilbo*. Hori egiterakoan, eskubide bat defendatzen zutela zioten. Euskal Herriko herri izenak jatorrizkoak izan zitezela; Euskal Herri osokoak.

### Emaitza

Polizia «Nazionalak», bere egimberrara hetez, atxilotu zituen; komisarian lau ordu igaro ondoren kalera. Ongi! Hamazazpi lagun horiek gu ginen, eta zenbait galdera egin nahi di-

zuegu Eusko Jaurlaritzako jaun horiek!

Zuek, Komunitate Autonomoan euskal toponimia ofizialtasunera eramane duzuen horiek, Komunitate Autonomo horretatik at, ez al duzue euskal toponimia defendatu behar?

Zuek, Euskal kulturaz arduratzen zareten horiek, euskal kultura Komunitate Vascongandak bakarrik existitzen dela uste al duzue? (Martxa honetan laster lortuko duzue). Zer nahi duzue? Euskal kulturak «denominación de origen» berezia eduki dezan? (Kontuz!), Euskal kultura bakarra *Eusko Komunitatean* produzitzen dena da, ez fidatu imitazioetatik!).

Zuek, *Arartekoa*, Herriaren defentzailea eskuratzea lortu duzuen horiek, jaun horiek euskararen eskubideak defendatu beharko lituzkeela pentsatu al duzue? (Agian, euskara pertsona ez baita...). Hariari eutsiz, gu defendatuko al gaitu honelako kasuetan? Jaun hori Eus-



kal Herri osoan egongo al da gure hizkuntza defendatzeko prest? Arartekoak hizkuntz eskubideak defendatuko al ditu? Eta zenbait eskubide zapaltzen duena Eusko Jaurlaritzak odota «Nafarrasko gobernu» baldin bada, noren alde jokatu du?

Zuek, «Euskaraz-bizi» lema-pan kanpaina edo bat antolatuz duzuenok, saiatu al zarete euskaraz bizitzen? (Euskarra hutsuz, noski!). Probatu al duzue

Euskal Parlamentuan batzarrak euskaraz egitea? (eta barkamena eskatu gabe). Honela ez bada izan, noiz egin behar duzue? Noiz ekin behar diozue euskara salba dezakeen plangintza orokor eta serio bati? Euskararentzat irtenbide bakarra dela jakinik... («Componello que no enmendallo» aditua dugu beste garaietan, eta ez dugu honen esanahia ahanzi). Profeta baikor eta maite horiek,

euskararen iraupena ez datza biharko umengana, gaurko euskaldunengan baizik.

Eta azkenean, Lehendakaria den Garaikoetxeari galderatxo bat egin nahi dugu:

Gasteiz-Vitoriatik zu jaio zinen herrira abiatzen zarenean, zure sendiarekin biltzeko asmoz, norantz zoaz, Iruñerantz, Pamplonarantz ala Iruñea-Pamplonarantz? Non zehar pasatzen zara Nafarroan zehar ala «por tierras de Navarra»?

Azkenik, agurra bezala, zera galdetu nahi dugu:

Arazo garrantzitsuak konpontzeko Madrilo eta Pariseko buruak elkarri egiten dira, Europako beste buruci baimena eskatu gabe; Euskalduntzat hain garrantzitsu den arazoari, hots, euskararen iraupenari irtenbidea bilatzeko (bilatzea ez da aurkitzea) ez al dago «kultur batzorde bateratua» eratzerik Euskal Herria osatzen duten hiru zatietako ordezkariekin? Hobeto galdetu: Ba al dago borondaterik?

EUSKAL HERRIAN  
EUSKARAZ